KORONABIRUS (COVID-19) AURREAN BERMEOKO UDALEKO LANGILEENTZAT PROTOKOLOA

A) ZER DA KORONABIRUSA?

Koronabirusak soilik animalietan aurkitzen diren birus familia zabal bat dira, baina batzuek gizakia infektatzeko gaitasuna dute eta hainbat gaixotasun eragin ditzakete, hotzeria arruntetik hasita, gaixotasun larriagoetara ere iristeko, hala nola, arnas sindrome akutu larria (SARS).

Koronabirus berriak SARS-CoV-2 du izena eta sortzen duen gaixotasuna COVID-19 da.

B) SINTOMAK:

- 37º tik GORAGOKO SUKARRA
- AIRE FALTA SENTSAZIOA
- ESTUL LEHORRA

C) PROTOKOLOAREN HELBURUA

- Langileen osasuna zaintzeko ardurak areagotu.
- Birusaren efektuen eragina gutxitzea langileriaren baitan. Birusaren ondorioak irauten duten bitartean langileek euren lanpostuetan ez egoteari aurre egitea.
- Erakundearen funtzionamendu normala bermatzea ahal den heinean.

D) KUDEAKETA TALDEA

- Ondo zehaztutako erantzukizunak eta eginkizunak dituen Kudeaketa Taldea izendatu da birusen ekintzaren unean plangintza eta erantzun lanei aurre egiteko.
- Kudeaketa Talde honek bertan ezartzen diren neurriak gauzatzeko argibideak emateko funtzioa izango du.
- Kudeaketa Taldea beharrizanen arabera batzartuko da, larrialdi egoeretan izan ezik, eta eman daitezkeen gertakarien berri informatuko du.

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003E83300O5B9X3H0M7M3

Sinadurea eta datea
GAIZKA GERVASI BEITIA-ARRISKU TEKNIKARIA - 12/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2020 14:26:17

EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0401
Datea: 12/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Salbuespenak salbuespen eta unean uneko beste kideren batez osatu daiteke baina erregularki Kudeaketa Taldea kide hauek osatuko dute:
    - Alkatea eta langileria zinegotzia
    - Idazkaria
    - Langileria teknikaria
    - Laneko prebentzio teknikaria

- Laneko prebentzio teknikaria izango da talde honetako koordinatzailea. Batzar deiak proposatuko ditu, batzarrak sustatuko ditu, aktak jasoko ditu eta langile desberdinen artean, protokoloa eta hartzen diren erabakiak zabalduko ditu erakundean (segurtasun koordinatzaileak, sailetako arduradunak, prebentzio delegatuak, etab.)

E) PREBENTZIORAKO NEURRI OROKORRAK

NEURRI UNIBERTSALAK:

- Eskuak sarri garbitu:
    - Zintz, dominstiku edo eztula egin ondoren
    - Komunera Joan ondoren
    - Animaliekin kontaktua izan ondoren
    - Jakiak jan edo manipulatu aurretik
    - Baldin eta eskuak zikin badituzu
    - Gaixo dagoen pertsona bat artatu aurretik eta ondoren

- Eztul edo dominstiku egitean, estali ahoa eta sudurra ukondoa tolestuta edo erabili eta botatzeko zapi batekin.
- Bota zakarrontzira zapia berehala eta garbitu eskuak alkoholez egindako eskuetako desinfektatzaile batekin edo ur eta xaboiarekin.
- Arnas infekzio bat izanez gero, saihestu hurbileko kontaktua beste pertsona batzuekin.
- Eztula edo dominstiku egiten duten pertsonetatik metro eta erdi batera egon gutxienez.

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003E83300O5B9X3H0M7M3

Sinadurea eta datea
GAIZKA GERVASI BEITIA-ARRISKU TEKNIKARIA - 12/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2020 14:26:17

EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0401
Datea: 12/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa.
- Eskuen ukitze-eremuetan garbitasuna areagotu, etxean zein leku publikoetan.

Orokorki, eta BERMEOKO UDALAko langile guztiei aplikagarria diren neurriak:

1- Langile guztiei birusaren, haren transmisio bideen eta hartu beharreko prebentzio neurrien berri emango zaie, neurri higienikoetan arreta berezia jarriz.

Helburu horrekin:

- Protokolo honen zabalkundea egingo da intraneten, emailez eta sailburu bakoitzak bere sailean azalduta

- Ikusgai jarriko dira, bai langileei, bai herritarrei begira, hartu beharreko neurriak zeintzuk diren (I. Eranskina).

- Eskuak garbitzeko instrukzioak komun guztietan jasoko dira (II. Eranskina).

2- Arreta berezia jarriko da herritarrei arreta zuzena eskaintzen diren lanpostu eta eraikinetan (**Berhaz, Turismo bulegoa, Liburutegia, kultur etxea, musika eskola, lanbide hastapenak, Behargintza**…) eta arreta zuzeneko lanpostuetan, ahal den heinean, pertsonen arteko **1,5 m distantzia** mantenduko da.

3- Instalazioen garbiketa indartuko da, transmisioa egon litezkeen gainazaletan arreta berezia eskainiz. Eremua eta lanerako ekipamendua egunero garbituko dira (mahaia, ordenagailua, teklatua, sagua, mugikorra.)

4- Norberaren laneko ekipoak bakarrik erabili. (Ordenagailua, mugikorra, boligrafoa, arkatza ...)

5- Biltegiratzeko guneetan, segurtasun eskularruak nahitaezkoak izango dira eta eskuen higienea sarri mantenduko da.

6- Diruz ordaintzea saihestu beharko litzateke. Edozein kasutan, haiekin aritzen diren langileei botatzeko eskularruak hornituko zaizkie horiek erabiltzeko helburuarekin eta eskuzko higiene sarri mantenduko dute.

7- Instalazioak eta lan guneak sarri aireztatuko dira, ahal bada leihoak irekiz.

8- Esku-desinfekziorako disoluzio hidroalkoholikoez hornituko dira behar diren lanpostu eta lan guneetan.

9- Languneetako gainazalak desinfektatzeko disoluzioaz hornituko dira lanpostuak langileek horiek erabiltzeko helburuarekin.

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003E83300O5B9X3H0M7M3

Sinadurea eta datea
GAIZKA GERVASI BEITIA-ARRISKU TEKNIKARIA - 12/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2020 14:26:17

EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0401
Datea: 12/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

10- Bilerak, batzarrak edo bilkurak ahalik eta gehien mugatuko dira. Ahal den neurrian, eta sail desberdinen arteko harremanak aurrez aurre egin beharrean beste baliabide batzuk lehenetsiko dira (emailez, telefonoz, etab.)

11- Aurrez-aurreko barne eta kanpo prestakuntza ikastaroak eta antolatutako ekitaldi edo jardunaldiak atzeratuko dira, kasuan kasuko salbuespenak aurreikusiz.

12- Lan gune eta udal eraikin publiko desberdinetako sarreran eta komunetan Koronabirusari buruzko fitxa informatiboak jarriko dira eta beharrezko diren guneetan edukieraren informazioa jarriko da.

F) ARRETA BEREZIA BEHAR DUTEN ZERBITZUAK

UDALTZAINAK

- Identifikazioa, miaketa edo atxiloketa pertsona batena irizpide sintomatiko eta epidemiologikoa betetzen dituena (kontaktu estua ustezko edo baieztatutako kasu batekin) edo arnas sintomak dituen, kolaboratzen ez duen eta errespetatzen ez duena 1,5 m-ko distantzia minimoa

- Udaltzainek bi babes ekipamenduak (eskularruak + maskarilla FFP2) eduki beharko dituzte eskura, erabili ahal izateko behar dutenean, eta ezagutu ere nola jarri, erabili, kendu eta bota.

- Interbentzioko eskularruak erabiliz gero ondoren desinfektatu beharko dira soluzio desinfektatzaile batekin (likidoan edo paper-zapi bustiekin).

- Aplikatuko dira ere babes eta higiene pertsonaleko neurri unibertsal guztiak.

- Udaltzaingo bulegoko atea beti irekita egongo da, horrela bulegora etortzen den jendea (Udaltzainak barne) ez dute inongo heldulekurik ukitu behar.

- Ibilgailuak alde zaharrera sartzeko baimena (papera) udaltzainek eskuz beteko dute herritarrek emandako datuekin.

- Kalean topatutako gauzak batzerakoan eskularruak ipinita egongo dute eta poltsa zarratuetan sartuko dira.

ARRETA ZUZENEKO ZERBITZUAK: (Behargintza, Liburutegia, Berhaz, udal bulegoak, KZgunea,…)

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003E83300O5B9X3H0M7M3

Sinadurea eta datea
GAIZKA GERVASI BEITIA-ARRISKU TEKNIKARIA - 12/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2020 14:26:17

EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0401
Datea: 12/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Zorrotz aplikatuko beharko dira babes eta higiene pertsonaleko neurri unibertsal guztiak (eskuak garbitzea, ekidin kontaktu estua, etab..)
- Gorde 1,5 m. distantzia minimoa erabiltzaileen aurrean.
- Gel hidroalkoholikoak eskura egongo dira.
- Garbiketa areagotuko da eskuekin ukitzen diren gainazaletan eta horiek desinfektatzeko baliabideak hornituko dira.
- Edukiera erdira mugatuko da eta horren berri adieraziko zaie erabiltzaileei edukiera mugaren kartelak ezarriz bulegoan (III. eranskina).
- Komunikaziorako arreta telematikoa eta telefonikoa lehenetsiko da arreta zuzenaren aurrean.
- Udal eraikien erabiltzaileek bete behar dituzten inprimakiak udaleko langileek beteko dituzte eta sinatzeko orduan dagokion langileak sinatuko du interesdunaren identifikazioa kreditatu ostean. Sinadura horiekin batera langileak eginbidea egin beharko du gertatutakoa adieraziz.

KIROLDEGIA:

- Zorrotz aplikatuko beharko dira babes eta higiene pertsonaleko neurri unibertsal guztiak (eskuak garbitzea, ekidin kontaktu estua, etab..)
- Gorde 1,5 m. distantzia minimoa erabiltzaileen aurrean.
- Gel hidroalkoholikoak eskura egongo dira.
- Garbiketa areagotuko da eskuekin ukitzen diren gainazaletan eta horiek desinfektatzeko baliabideak hornituko dira.
- Edukiera erdira mugatuko da eta horren berri adieraziko zaie erabiltzaileei edukiera mugaren kartelak ezarriz bulegoan.

G) ADINEKO ETXEAK, KLUBAK, EKIMENAK, IKASTAROAK ETA MUSIKA ESKOLA

Bertan behera geratuko diren udal zerbitzuak hauek izango dira:

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003E83300O5B9X3H0M7M3

Sinadurea eta datea
GAIZKA GERVASI BEITIA-ARRISKU TEKNIKARIA - 12/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2020 14:26:17

EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0401
Datea: 12/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

* Adineko etxeak (Erroxape, Demiku…)

* Musika eskola

Bertan behera geratuko diren udal ekimenak hauek izango dira:

*Bekoportale

* Ludoteka

*Gazte leku

*Zinema

* Kirol ikastaroak

* Hizkuntza ikastaroak (berbalagun, udal euskaltegia…)

*Antzerkiak, etb.

H) ZELAN EGIN GARBIKETAK ETA NON:

Udal lantoki eta lanpostu ezberdinetan egingo diren garbiketak IV. eranskinean adierazten den bezala jardungo da.

I) LANGILE BATEK GAIXOTASUNAREN SINTOMAK SUMATUZ GERO JARDUERARAKO ARAUAK

Langilea batek sintomak baditu eta kontaktuan egon bada koronabirusak infektatutako edo infekzio horren susmoa duen eta behaketan dagoen pertsona batekin:

- Ez da lantokira etorriko eta lanean badago, etxera joango da arduradun zuzenari esan eta gero
- Osasun zerbitzuekin harremanetan jarriko da eta adierazten dioten gomendioak eta hartu beharreko neurriak jarraituko ditu.
- Osasun zerbitzuak baja emango dio (gaixotasun arrunta izango da, Gizarte Segurantzaren 2/2020 irizpideen arabera). Laborategiko emaitzak izan arte, pertsona

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003E83300O5B9X3H0M7M3

Sinadurea eta datea
GAIZKA GERVASI BEITIA-ARRISKU TEKNIKARIA - 12/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2020 14:26:17

EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0401
Datea: 12/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

isolatuta eta behaketan mantenduko dute, baieztatutako kasu baten aurrean eramaten diren kontrol neurriak jarraituz.

- Ondoren bere arduradun zuzenari eta Langileria Sailari jakinarazi bajan dagoela eta helarazi baja agiriaren kopia (argazkia bidaliz, emailez edo whatsapp bidez…)

- Analisietan COVID-19 kasu bat dela baieztatzen bada, ohartarazi Saileko buruari edo Laneko prebentzio teknikariari, bere lankideak "kontaktu" bihurtuko direlako, eta hauen jarraipena egin ahal izateko.

Bere lantaldeko edo bulegoko lankideek:

- **Sintomarik EZ badute**, ez dute ezer egin behar. Ez dago ebidentziarik sintomarik ez duen pertsona infektatuak birusa transmitituko duenik. **Kutsadurak sintomak agertu ostean gertatzen dira.**

- **Norbaitek SINTOMAK baditu**, hau ere Osasun zentro batekin jarriko da harremanetan **900 20 30 50** telefonoaren edo norberaren osasun zentroaren telefonoaren bitartez.

- **COVID-19 kasu bat baieztatzen bada**, orduan lankideak **"kontaktu" bihurtuko** dira eta **Zaintza Epidemiologikoko Unitatea**k arriskua ebaluatu, kasuarekin kontaktua izan duten pertsonak identifikatu eta hartu beharreko neurriei buruzko aholkuak emango ditu. Edozein kasutan:

  a. Egoera eta "kontaktu" bakoitzari aplikatu beharreko neurriak indibidualizatuak izango dira.

  b. "Kontaktu" guztiei babes eta arnas higiene unibertsaleko neurrien inguruan informatuko zaie.

  c. Ez da gomendatzen errutinaz kontaktu guztiengandik laginak hartzea.

- Komeni da jakitea zeintzuk izan diren lehenengo kasuarekin kontaktuan egon diren pertsonak (lankideak, lagunak, senideak…) ondoren jarraipena egin ahal izateko.

- Erakundean egin behar diren ekintzak kutsatutakoak izan duen bulegoa edo lantokia ondo aireztatzea eta kontaktuan egon litezkeen laneko gainazalak garbitzea (mahaia, aulkia, teklatua ...) izan behar dira.

J)TELELANA

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003E83300O5B9X3H0M7M3

Sinadurea eta datea
GAIZKA GERVASI BEITIA-ARRISKU TEKNIKARIA - 12/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2020 14:26:17

EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0401
Datea: 12/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Koronabirusaren arriskupean egon daitezkeen edo susmoa duten langileek zerbitzua lantokian bertaratu gabe emateko aukera izango dute. Telelanaren araudiaren 4.b artikuluan zehaztutako baldintzak beharrezkoa izango da betetzea. Beti ere, eskari horiek kasuan kasu aztertuko dira.

OHARRAK

Egunean eguneko egoera aldakorra denez, eta Erakunde desberdinetatik ezartzen diren irizpideak aldatzen doanez, protokolo honetan ezartzen diren neurriak aldatu daitezke kudeaketa taldeak horrela erabakita.

KORONABIRUSAREN INFORMAZIORAKO TELEFONOA:	900203050
EMERGENTZIAZKO TELEFONOA:	112
BERMEOKO OSASUN ZENTROA:	946029050
LANEKO PREBENTZIO ZERBITZUA:	946179107
LANGILERIA SAILA:	946179109

I. Eranskina. Ikusgai jartzeko instrukzioak

II. Eranskina. Eskuak garbitzeko instrukzioak

III. Eranskina. Aforoa mugatzeko oharra

IV. Eranskina. Udal erikinen garbiketa egiteko jarraibideak

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003E83300O5B9X3H0M7M3

Sinadurea eta datea
GAIZKA GERVASI BEITIA-ARRISKU TEKNIKARIA - 12/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2020 14:26:17

EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0401
Datea: 12/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

ESKUAK UKARekin
ETA XABOIAREKIN

EZTUL
DOMI
EGITE
BESAU
MUKI

Mukiak kendu edo dominstiku edo eztul egin ondoren

ERABILI
MUKIZA
ETA, ON
ZAKARR
BOTA

Komunera joan ondoren

Gaixo dagoen norbait artatu aurretik eta ondoren

Animaliekin kontaktua izan ondoren

Elikagaiak jan edo manipulatu aurretik

Esku zikinak dituzun guztietan

ARNAS-SI
BAT IZAN
ARRISKU-
BIDAIATU
GERATU I
900 20

Osakidetza

Eusk

EUSKO JAURLAR

OSASUN SAILA

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40003E83300O5B9X3H0M7M3

Sinadurea eta datea

GAIZKA GERVASI BEITIA-ARRISKU TEKNIKARIA - 12/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2020 14:26:17

EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0401

Datea: 12/03/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Koronabirus: ESKUAK BEHAR BEZALA GARBITZEKO JARRAIBIDEAK

Coronavirus: INSTRUCCIONES PARA LAVARSE LAS MANOS ADECUADAMENTE

Mójese las manos y deposite en las palmas jabón líquido…

Eskuak busti eta esku-barrenetan xaboi likidoa jarri …

Frótese las palmas de las manos entre sí y entrelazando los dedos

Esku-barrenak bata bestearekin igurtzi, atzamarrak gurutzatuz.

Esku-barren bakoitza beste esku-gainarekin igurtzi, atzamarrak gurutzatuz.

Frótese cada palma contra el dorso de la otra mano, entrelazando los dedos.

Frótese las puntas de los dedos…

Atzamar-muturrak igurtzi…

Alrededor de los pulgares…

Hatz lodien inguruak ere bai…

Y las muñecas…

Baita eskumuturrak ere…

Enjuáguese las manos con agua y séquelas con una toalla de un solo uso

Xaboia urarekin kendu eta eskuak erabilera bakarreko eskuoihalarekin lehortu.

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SEMPER

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40003E83300O5B9X3H0M7M3

Sinadurea eta datea

GAIZKA GERVASI BEITIA-ARRISKU TEKNIKARIA - 12/03/2020

CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2020 14:26:17

EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0401

Datea: 12/03/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

BERMEOKO UDALA

KORONABIRUSA DELA ETA, BULEGO HONETAN EDUKIERA MUGATU DA:

X

pertsona gehienez

PARKATU ERAGOZPENAK

Laneko Prebentzio Zerbitzua. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo – Tel.: 94 617 9107
Faxa: 94 688 5010 / arrisku@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0401
Datea: 12/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

Sinadura eta datea
GAIZKA GERVASI BEITIA-ARRISKU TEKNIKARIA - 12/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2020 14:26:17

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003E8330005B9X3H0M7M3

IV. Eranskina

UDAL ERAIKINEN GARBIKETA EGITEKO JARRAIBIDEAK

Dokumentu honen helburua Udal eraikinen hartzen diren higiene-neurriak indartzea eta COVID-19 koronabirusaren aurrean udaleko eraikinetan abian jarri beharko diren prebentzio-neurriak eta jardunak ezagutaraztea da. Hau da, birusaren transmisioa murriztea eraikinetako langileen eta erabiltzaileen artean.

Higiene neurriak eraikinetan

SARS-CoV-2 koronabirusaren kasu batek eztul edo dominstiku egitean kanporatutako listu-tantatxoak hurbil dauden pertsonen ahoarekin edo sudurrarekin kontaktuan jar daitezke, edo azaleretan geratu (mahaiak, ateen heldulekuak, objektuak,…) eta bertan ordu batzuk mantendu. Horregatik, garrantzitsua da udal eraikinetan higiene neurriak mantentzea, indartzea eta prozedura berriak ezartzea.

Garbiketa eta desinfekzioa

Eraikinetako objektuak eta ingurumen-gainazalak garbitzea eta desinfektatzea lagungarria da haietan egon daitezkeen birusak desagerrarazteko, birusaren transmisioa minimizatzea ahalbideratuz.

- Garbiketa prozeduretarako jarraibideak normalean egiten direnak dira. Komertzialki eskuragarri dagoen edozein **xaboi edo detergentea** erabil daiteke. Ura hotza edo epela izan daiteke, edo erabilitako garbiketa-produktuaren etiketan gomendatzen denaren arabera.

- Xaboiarekin edo detergentearekin garbitu ondoren, urarekin garbitu behar da.

- Desinfektatzaileak eta garbitzaileak erabiltzen direnean, jarraibideak arretaz jarraitu.

- Mahaietan edo objektuetan utzitako hautsa urarekin eta xaboiarekin kendu beharko da, eta ez trapu lehorrekin. Ahal den guztietan mopa eta fregona

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003E83300O5B9X3H0M7M3

Sinadurea eta datea
GAIZKA GERVASI BEITIA-ARRISKU TEKNIKARIA - 12/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2020 14:26:17

EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0401
Datea: 12/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

erabili, eta ez erratza. Izan ere, eskobatzean lurretik hautsa altxatzen da.

- **Batzar-geletan** eta **itxaron-guneetan** garrantzitsua da higiene neurriak areagotzea; izan ere; egunean zehar haietatik igarotzen diren pertsonen joan-etorri handia da.

Garbiketa eraikin osoan egingo da, **gutxienez egunean behin**. Honakoetan arreta berezia jarriko da:

- Mahaiak eta aulkiak.
- Ateen heldulekuak.
- Argiaren etengailuak, telefonoak, tinbreak.
- Ordenagailuetako teklatuak eta saguak.
- Batzar gelak.
- Komunak.

- **Lurrerako alfonbrarik edo estalkirik ez izaten saiatuko beharko gara,** salbu eta horietan garbitasuna zorrozten bada. Edukiz gero, ez dira astindu behar garbitzean.

- Oso garrantzitsua da paper-ontzi guztietan plastikozko poltsak jarrita edukitzea. Egunero batu, zarratu eta bota egin beharko dira. Hau da, ezingo dira berrerabili.

Eraikinen aireztapena

- Egunero eraikinetako gela eta komun guztiak aireztatu behar dira.

Garbitzeko materiala

- Komertzialki eskuragarri dagoen edozein xaboi edo detergente erabil daiteke.

- Garbiketarako eskularruak.

- Garbiketarako ohiko produktuak

Oharra: Lan arriskuei dagokionez **udal laneko prebentzio zerbitzuak** esanetara egongo gara eta zorrozki jarraituko dira adieraziko diren neurriak.

1. bertsioa. 2020ko martxoaren 11a

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003E83300O5B9X3H0M7M3

Sinadurea eta datea
GAIZKA GERVASI BEITIA-ARRISKU TEKNIKARIA - 12/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2020 14:26:17

EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0401
Datea: 12/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia